

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUIAKO UDALA

#### Alkatearen eginkizunak zinegotziaren esku uztea

Alkatearen 250/2019 Dekretua

Ni, alkatea, aurtengo uztailaren 21etik abuztuaren 4ra arte, biak barne, Zuiako udalerritik kanpo egongo naiz.

Kontuan hartu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 23.3. artikuluan xedatutakoa eta toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 47.1. artikuluan xedatutakoa.

Honen bidez, eta legeak aitortzen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

**EBAZTEN DUT**

Lehenengoa. Agustín Otsoa Eribeko Landa zinegotzia izendatzea alkate eginkizunak betetzeko ni kanpoan naizen bitartean.

Bigarrena: Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea, egiten den lehen osoko bilkuran udalbatzari horren berri ematea eta ALHAOn argitaratzea.

Murgia, 2019ko uztailaren 19a

*Alkate-lehendakaria*  
**UNAI GUTIÉRREZ URKIZA**